Kontratuen erregistroa 2024ko irailean

KONTRATATUTAKO PERTSONAK

2024ko irailean 56.752 pertsona kontratatu dira, iazko irailean baino 291 gutxiago (% 0,5eko beherakada). Aurreko hilaren aldean 20.111 pertsona gehiago dira kontratatutakoak (% 54,9ko hazkundea).

• SEXUA

Irailean 28.011 gizon eta 28.741 emakume kontratatu dira. Aurreko urtearekin alderatuta, kontratazioak behera egin du bai gizonen zein emakumeen artean, zertxobait gutxiago emakumeen artean; % -0,3 (-99 emakume), eta % 0,7 jaitsi da gizonen artean (-192). Hileko erlazioan gizonen kontratazioak % 49,2 egin du gora (+9.230), eta emakumeen kontratazioak, berriz, % 60,2 egin du gora (+10.881).

• ADINA

Kontratatutako pertsonen batez besteko adina 35,42 urtekoa da, eta txikiagoa da gizonen artean (35,14) emakumeen artean (35,70) baino. Kontratatutako pertsona gazteenak Gipuzkoan izan dira (35,04 urte), eta helduenak, berriz, Araban (35,69).

Teknikari laguntzaileen taldea da gazteenak kontratatzen dituena, batez beste 31,23 urte baitituzte. Helduenak zuzendaritza-lanetarako kontratatutako pertsonak dira, 42 urtetik gorako batez bestekoarekin. Lanaldi partzialerako kontratatutako pertsonak lanaldi osorako kontratatutakoak baino gazteagoak dira (34,18 urte eta 36,11 urte, hurrenez hurren), eta alderik handiena gizonen kasuan dago (lanaldi partzialeko kontratuetan 32,02 eta lanaldi osokoetan 36,18ko batazbesteko adina). Kontratuaren iraupenaren arabera, kontratu mugagabeak dituzten pertsonen batez besteko adina aldi baterako kontratuak dituztenen batez bestekoa baino baxuagoa da (34,79 vs 35,71).

• JATORRIA

2024ko irailean kontratatutako pertsonen % 20,5ek atzerriko nazionalitatea du, iazko irailean baino 0,3 puntu gehiago. Kontratatutako atzerritar guztietatik, % 48,6k Latinoamerikako herrialderen bateko nazionalitatea dute, % 14,7k Afrika iparraldeko herrialderen batekoa, % 14,6k Saharaz hegoaldeko Afrikakoa, % 7,6k Europako Erkidegokoa ez den herrialderen batekoa, % 7,2k Europako Erkidegoko herrialderen batekoa eta % 5ek Asiakoa. Bertakoak gazteagoak dira (35,17 urte) atzerritarrak baino (36,40 urte). Kontratazio-bolumen jakin bat duten atzerritarren artean, Latinoamerikatik etorritakoak dira gazteenak 35,73 urterekin, eta Europako Erkidegokoa ez den herrialderen batetik etorritakoak, berriz, helduenak, 38,28 urterekin.

Azken hilabetean, 3.591 atzerritar gehiago kontratatu dira (+% 44,7); bertakoak % 57,8 gehitu diren bitartean (+16.520 pertsona). Kontratazio-maila esanguratsua duten jatorri guztietako kontratatuen kopuruak gora egin du. Balio absolutuetan, Latinoamerikatik etorritako pertsonen taldean igo da gehien, 997 pertsona gehiagorekin eta % 21,4ko hazkundearekin; balio erlatiboetan, igoerarik handiena Europako Erkidegotik etorritako pertsonen kontratazioan izan da, % 101,7ko igoerarekin (+422 pertsona).

Iazko hil beraren aldean, 79 atzerritar gehiago kontratatu dira (% 0,7 gehiago); autoktonoak, berriz, 370 gutxiago dira(% 0,8ko beherakada). Kontratazio esanguratsua duten jatorri guztietan jaitsi da kontratazioa, Latinoamerikakoetan izan ezik, 365 pertsonatan igo baita (+%6,9) eta Asiakoetan izan ezik (+12 pertsona). Gehien murriztu den jatorria, balio absolutuetan zein erlatiboetan, Ipar Afrikatik etorritakoena izan da, 167 pertsona gutxiago (% 8,9ko jaitsiera) izan baitute.

• PRESTAKUNTZA-MAILA

Kontratatutako pertsonen % 41,4k oinarrizko prestakuntza-maila du, gehienez ere derrigorrezko hezkuntza egin dute, % 23k batxilergoko ikasketak ditu, % 20k unibertsitatekoak eta % 15,4k Lanbide heziketakoak.

Hileko erreferentzian, hazi egin da ikasketa maila guztietako pertsonen kontratazioa. Balio absolutuetan, gehien hazi direnak derrigorrezko ikasketak dituzten pertsonak dira, 6.983 pertsona gehiago (+%42,3); balio erlatiboetan, igoerarik handiena unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonen kontratazioak izan du, % 94,4 gehiago (+5.499 pertsona).

Urteko erreferentzian behera egin du profil guztietan kontratatutako pertsonen kopuruak, batxilergoko ikasketetan izan ezik, 1.143 pertsona gehiago kontratatu baitira (+%9,6). Aldiz, jaitsierarik handiena, bai balio absolutu zein erlatiboetan, derrigorrezko ikasketak dituzten pertsonen artean gertatu da, 1.027 pertsona gutxiagorekin eta % 4,2ko jaitsiera portzentualarekin.

KONTRATUEN KOPURUAK

Irailean, EAEn 74.413 kontratu sinatu dira, horietatik 19.097 mugagabeak dira (guztietatik % 25,7). Ehuneko handia da, 2022. urtearen hasieran lan-erreforma onartu eta aplikatu aurreko serie historikoarekin alderatuta; gainera, hainbat hilabetetako jaitsieraren ondoren berriz hazi da eta % 25eko langa gainditu du. Abuztuaren aldean 0,5 puntu igo da da eta iazko irailarekin alderatuta, 3,5 puntu hazi da. Kontratu mugagabea dutenen ehunekoa handiagoa da gizonen artean: % 26,7, eta emakumeen artean % 24,7.

Kontratazioak % 55,1 egin du gora joan den hilabetearekin alderatuta (26.447 kontratu gehiago); aldi baterako kontratuetan, igoera % 45,4koa izan da (+17.278 kontratu) eta mugagabeetan % 92,4koa (+9.169 kontratu).

Urteko erreferentzian, % 1,3 igo dira kontratuak 2023ko irailarekin alderatuta, 939 kontratu gehiago sinatu baitira. Hala ere, kontratuen bilakaera ezberdina izan da iraupenaren arabera: aldi baterako kontratuek gora egin dute (+3.277, +%6,3) eta kontratu mugagabeek behera egin dute nabarmen (-% 10,9, -2.338 kontratu gutxiago)

• JARDUERA EKONOMIKOA

Joan den hilabetearekin alderatuta, ia jarduera guztietan egin du gora kontratazioak. Kontratazioan igoera handienak izan dituzten jarduerak hezkuntza (+5.617), informazioa eta komunikazioa (+3.048) eta manufaktura-industria (+2.964) izan dira. Aitzitik, jaitsi diren jarduera bakarrak ura (-52) eta finantzarioak (-28) dira.

Iazko irailarekin alderatuta, kontratazio gehien egin duten jarduerak informazio- eta komunikazio-jarduerak (+2.185, % 69,9ko igoera) eta artistikoak (+821, +%23,7) izan dira. Jaitsierarik nabarmenenak, berriz, administratiboetan (-867, % 11,7ko murrizketa) eta manufaktura-industrian (-384, - % 4,1) izan dira.

• OKUPAZIOA

Hil arteko bilakaeran, gora egin du kontratazioak okupazio guztietan. Igoerarik handiena, balio absolutuetan, 8.739 kontratu gehiago izan dituen teknikari zientifikoen profilean gertatu da (% 157,9ko igoera); balio erlatiboetan, lehen sektorekoen profilean izan da igoerarik handiena, % 254,2ko hazkundearekin (+333 kontratu).

Iazko hil beraren aldean, teknikari eta profesional zientifikoen profilak izan du gehikuntzarik handiena, bai balio erlatibo zein absolutuetan, 1.946 kontratu gehiagorekin eta % 15,7ko hazkundearekin. Aldiz, jaitsierarik handiena, guztizko balioetan, kualifikatu gabeek izan dute, 1.330 kontratu gutxiagorekin (-%6,6); balio erlatiboetan, jaitsierarik handiena lehen sektoreko kualifikatuen kontratazioan gertatu da, % 19,7ko jaitsierarekin (-114 kontratu).

• KONTRATAZIO-MOTA

Hilabete honetan, berriz ere, mugagabeen tasa nabarmendu behar da; izan ere, 2022ra arte % 10etik behera egon ohi zen tasa hau, eta kasu honetan % 25,7ra iritsi da. % 20tik gorako tasa horiek ohikoak izaten ari dira 2022ko hasieran aplikatutako lan-erreformaren ondotik. Hala ere, azken hilabeteetan tasa horrek beheranzko joera hartu zuen eta hil honetan joera hori hautsi egin da.

2024ko irailean irailean sinatutako kontratuen % 35,1 lanaldi partzialekoak dira (aurreko hilean baino 0,5 puntu gutxiago), % 45,3 emakumeenak eta % 24,5 gizonenak. Kontratazio-mota horren arazo nagusia da gehienak nahi gabe egiten direla, ezarritako kontratu-harremanaren kalitatea eskasa dela agerian utziz. Kontratu mugagabeen % 31,8 lanaldi partzialekoak dira.

Lanaldi partzialeko kontratazioaren ehuneko handiena duten jarduera ekonomikoak, kontratazio-kopuru esanguratsua duten jardueren artean, honako hauek dira: ostalaritza (% 60,7), administrazio-jarduerak (% 56,2) eta etxeetako jarduerak (% 50). Okupazio-profilen arabera, lanaldi partzialeko kontratazioagatik gehien nabarmentzen dena zerbitzuetako langileena da (% 54,4), eta gutxien, lehen sektoreko langile kualifikatuena (% 1,2).

• LURRALDE HISTORIKOAK

Lurralde historikoen arabera, kontratazioaren % 21,6 Araban sinatu da, % 47,6 Bizkaian eta gainerako % 30,8 Gipuzkoan.

Hil honetan, Araban 7.565 kontratu gutxiago sinatu dira, eta lurralde historiko horretan egin du gora gehien hil arteko kontratazioak ehunekoetan (+%88,9); Bizkaian 11.362 kontratu gehiago egin dira (% 47,4 gehiago) eta Gipuzkoan 7.520 kontratu gehiago (% 48,8ko igoera).

Kontratuen erregistroa 2024ko irailean

Aurreko urtearekin alderatuta, Araban baino ez da murriztu kontratazioa: % 2,6 jaitsi da eta 429 kontratu gutxiago sinatu dira. Aitzitik, Gipuzkoan % 3,8 hazi da (842 kontratu gehiago) eta Bizkaian igoera 526 kontratukoa izan da, % 1,5 gehiago.

• BESTEREN ZERBITZUAN JARTZEKO KONTRATUAK (ABLE)

Irailean sinatutako kontratuen % 20,9 aldi baterako laneko enpresen bidez egin dira. ABLEen bidezko kontratazioa askoz ohikoagoa da gizonen artean emakumeen artean baino; lehenengoen artean, kontratuen % 27,8 enpresa mota horren bidez egin da, eta emakumeen artean, berriz, kontratazioen % 14,2 soilik izan dira ABLE bidez.

Aurreko hilabetearekin alderatuta, ABLE baten bidez egindako kontratazioak % 54,1 egin du gora (4.168 kontratu gehiago), eta, 2023ko irailarekin alderatuta, % 8,1 egin du gora (+917 kontratu).



Kontratuen erregistroa 2024ko irailean

		Ira-2024	Abu-2024	Ira-2023	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Mota	Mugagabea	19.097	9.928	21.435	9.169	92,35	-2.338	-10,9
	Aldi baterakoa	55.316	38.038	52.039	17.278	45,42	3.277	6,3
	Guztira	74.413	47.966	73.474	26.447	55,14	939	1,3
	Mugagabeen %	25,7%	20,7%	29,2%	4,97		-3,51	
Sexua	Gizona	36.536	24.196	36.230	12.340	51,00	306	0,8
	Emakumea	37.877	23.770	37.244	14.107	59,35	633	1,7
	Guztira	74.413	47.966	73.474	26.447	55,14	939	1,3
	Emakumeen %	50,9%	49,6%	50,7%	1,35		0,21	
Mugagabea	Gizona	9.738	5.530	10.637	4.208	76,09	-899	-8,5
	Emakumea	9.359	4.398	10.798	4.961	112,80	-1.439	-13,3
	Guztira	19.097	9.928	21.435	9.169	92,35	-2.338	-10,9
Aldi baterakoa	Gizona	26.798	18.666	25.593	8.132	43,57	1.205	4,7
	Emakumea	28.518	19.372	26.446	9.146	47,21	2.072	7,8
	Guztira	55.316	38.038	52.039	17.278	45,42	3.277	6,3
Guztira	Gizona	36.536	24.196	36.230	12.340	51,00	306	0,8
	Emakumea	37.877	23.770	37.244	14.107	59,35	633	1,7
	Guztira	74.413	47.966	73.474	26.447	55,14	939	1,3
Mugagabeen tasa	Gizona	26,7%	22,9%	29,4%	3,80		-2,71	
	Emakumea	24,7%	18,5%	29,0%	6,21		-4,28	
	Guztira	25,7%	20,7%	29,2%	4,97		-3,51	
Lanaldi partziala	Mugagabea	6.068	3.083	6.689	2.985	96,82	-621	-9,3
	Aldi baterakoa	20.036	13.987	18.322	6.049	43,25	1.714	9,4
	Beste batzuk	48.309	30.896	48.463	17.413	56,36	-154	-0,3
	Guztira	74.413	47.966	73.474	26.447	55,14	939	1,3
	LP tasa	35,1%	35,6%	34,0%	-0,51		1,04	
Lanaldi partziala	Gizona	8.951	6.297	8.526	2.654	42,15	425	5,0
	Emakumea	17.153	10.773	16.485	6.380	59,22	668	4,1
	Guztira	26.104	17.070	25.011	9.034	52,92	1.093	4,4
	Gizonen tasa	24,5%	26,0%	23,5%	-1,53		0,97	
	Emakumeen tasa	45,3%	45,3%	44,3%	-0,04		1,02	
	Tasa guztira	35,1%	35,6%	34,0%	-0,51		1,04	
Prestakuntzakoak	Prestakuntzakoak	186	47	133	139	295,74	53	39,8
	Beste batzuk	74.227	47.919	73.341	26.308	54,90	886	1,2
	Guztira	74.413	47.966	73.474	26.447	55,14	939	1,3
	Prestakuntzakoak (%)	0,2%	0,1%	0,2%	0,15		0,07	
L. historikoa	Araba	16.074	8.509	16.503	7.565	88,91	-429	-2,6
	Bizkaia	35.415	24.053	34.889	11.362	47,24	526	1,5
	Gipuzkoa	22.924	15.404	22.082	7.520	48,82	842	3,8
	EAE	74.413	47.966	73.474	26.447	55,14	939	1,3
Gizonak	Lehen sektorea	2.320	287	3.596	2.033	708,36	-1.276	-35,5
	Erauzketa-industriak	4	6	3	-2	-33,33	1	33,3
	Manufaktura-industriak	6.682	4.564	6.963	2.118	46,41	-281	-4,0
	Energia	20	10	6	10	100,00	14	233,3
	Ura	516	581	446	-65	-11,19	70	15,7
	Eraikuntza	1.771	1.175	1.782	596	50,72	-11	-0,6
	Merkataritza	3.258	2.483	3.428	775	31,21	-170	-5,0
	Garraioa	3.908	2.775	3.763	1.133	40,83	145	3,9
	Ostalaritza	3.599	2.947	3.498	652	22,12	101	2,9
	Informazioa eta komunikazioa	2.892	1.227	1.672	1.665	135,70	1.220	73,0
	Finantzak eta aseguruak	110	128	116	-18	-14,06	-6	-5,2
	Higiezinen sektorea	24	11	28	13	118,18	-4	-14,3
	Zientifikoak eta teknikoak	1.015	514	1.009	501	97,47	6	0,6
	Administraziokoak	2.719	2.580	3.228	139	5,39	-509	-15,8
	Administrazio publikoa	471	272	351	199	73,16	120	34,2
	Hezkuntza	2.014	405	1.924	1.609	397,28	90	4,7
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	1.804	1.687	1.776	117	6,94	28	1,6

Kontratuen erregistroa 2024ko irailean

		Ira-2024	Abu-2024	Ira-2023	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
	Arte- eta jolas-jarduerak	2.770	2.147	2.080	623	29,02	690	33,2
	Beste zerbitzu batzuk	556	315	477	241	76,51	79	16,6
	Etxeetako jarduerak	81	82	83	-1	-1,22	-2	-2,4
	Lurraldez kanpoko erakundeak	2	0	1	2		1	100,0
	Guztira	36.536	24.196	36.230	12.340	51,00	306	0,8
Emakumeak	Lehen sektorea	272	51	393	221	433,33	-121	-30,8
	Erauzketa-industriak	4	0	0	4		4	
	Manufaktura-industriak	2.405	1.559	2.508	846	54,27	-103	-4,1
	Energia	14	8	16	6	75,00	-2	-12,5
	Ura	47	34	56	13	38,24	-9	-16,1
	Eraikuntza	148	89	155	59	66,29	-7	-4,5
	Merkataritza	4.582	3.397	4.478	1.185	34,88	104	2,3
	Garraioa	933	620	920	313	50,48	13	1,4
	Ostalaritza	5.873	3.594	6.051	2.279	63,41	-178	-2,9
	Informazioa eta komunikazioa	2.419	1.036	1.454	1.383	133,49	965	66,4
	Finantzak eta aseguruak	145	155	157	-10	-6,45	-12	-7,6
	Higiezinen sektorea	71	33	59	38	115,15	12	20,3
	Zientifikoak eta teknikoak	1.084	506	1.046	578	114,23	38	3,6
	Administraziokoak	3.838	3.289	4.196	549	16,69	-358	-8,5
	Administrazio publikoa	624	221	500	403	182,35	124	24,8
	Hezkuntza	5.055	1.047	5.070	4.008	382,81	-15	-0,3
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	6.732	5.712	6.677	1.020	17,86	55	0,8
	Arte- eta jolas-jarduerak	1.518	1.080	1.387	438	40,56	131	9,4
	Beste zerbitzu batzuk	951	482	830	469	97,30	121	14,6
	Etxeetako jarduerak	1.156	855	1.288	301	35,20	-132	-10,2
	Lurraldez kanpoko erakundeak	6	2	3	4	200,00	3	100,0
	Guztira	37.877	23.770	37.244	14.107	59,35	633	1,7
Guztira	Lehen sektorea	2.592	338	3.989	2.254	666,86	-1.397	-35,0
	Erauzketa-industriak	8	6	3	2	33,33	5	166,7
	Manufaktura-industriak	9.087	6.123	9.471	2.964	48,41	-384	-4,1
	Energia	34	18	22	16	88,89	12	54,5
	Ura	563	615	502	-52	-8,46	61	12,2
	Eraikuntza	1.919	1.264	1.937	655	51,82	-18	-0,9
	Merkataritza	7.840	5.880	7.906	1.960	33,33	-66	-0,8
	Garraioa	4.841	3.395	4.683	1.446	42,59	158	3,4
	Ostalaritza	9.472	6.541	9.549	2.931	44,81	-77	-0,8
	Informazioa eta komunikazioa	5.311	2.263	3.126	3.048	134,69	2.185	69,9
	Finantzak eta aseguruak	255	283	273	-28	-9,89	-18	-6,6
	Higiezinen sektorea	95	44	87	51	115,91	8	9,2
	Zientifikoak eta teknikoak	2.099	1.020	2.055	1.079	105,78	44	2,1
	Administraziokoak	6.557	5.869	7.424	688	11,72	-867	-11,7
	Administrazio publikoa	1.095	493	851	602	122,11	244	28,7
	Hezkuntza	7.069	1.452	6.994	5.617	386,85	75	1,1
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	8.536	7.399	8.453	1.137	15,37	83	1,0
	Arte- eta jolas-jarduerak	4.288	3.227	3.467	1.061	32,88	821	23,7
	Beste zerbitzu batzuk	1.507	797	1.307	710	89,08	200	15,3
	Etxeetako jarduerak	1.237	937	1.371	300	32,02	-134	-9,8
	Lurraldez kanpoko erakundeak	8	2	4	6	300,00	4	100,0
	Guztira	74.413	47.966	73.474	26.447	55,14	939	1,3
Gizonak	<>	0	1	0	-1	-100,00	0	
	Zuzendaritza	122	61	109	61	100,00	13	11,9
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	5.848	2.421	4.632	3.427	141,55	1.216	26,3
	Teknikariak eta laguntza emateko profesionalak	4.183	2.543	3.677	1.640	64,49	506	13,8
	Administrazioko langileak	1.249	1.014	1.258	235	23,18	-9	-0,7
	Zerbitzuetako kualifikatuak	6.755	5.802	7.018	953	16,43	-263	-3,7

Kontratuen erregistroa 2024ko irailean

		Ira-2024	Abu-2024	Ira-2023	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
	Oinarrizko kualifikatuak	416	120	513	296	246,67	-97	-18,9
	Industriako kualifikatuak	3.312	2.138	3.409	1.174	54,91	-97	-2,8
	Operadoreak	4.093	2.793	3.936	1.300	46,54	157	4,0
	Kualifikatu gabeak	10.558	7.303	11.678	3.255	44,57	-1.120	-9,6
	Guztira	36.536	24.196	36.230	12.340	51,00	306	0,8
Emakumeak	<>	0	0	1	0,00		-1,00	-100,0
	Zuzendaritza	65	39	59	26	66,67	6	10,2
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	8.515	3.149	7.785	5.366	170,40	730	9,4
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	3.197	1.803	2.916	1.394	77,32	281	9,6
	Administrazioko langileak	2.293	1.343	2.392	950	70,74	-99	-4,1
	Zerbitzuetako kualifikatuak	14.177	10.070	14.216	4.107	40,78	-39	-0,3
	Oinarrizko kualifikatuak	48	11	65	37	336,36	-17	-26,2
	Industriako kualifikatuak	443	269	468	174	64,68	-25	-5,3
	Operadoreak	724	428	717	296	69,16	7	1,0
	Kualifikatu gabeak	8.415	6.658	8.625	1.757	26,39	-210	-2,4
	Guztira	37.877	23.770	37.244	14.107	59,35	633	1,7
Guztira	<>	0	1	1	-1	-100,00	-1	-100,0
	Zuzendaritza	187	100	168	87	87,00	19	11,3
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	14.363	5.570	12.417	8.793	157,86	1.946	15,7
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	7.380	4.346	6.593	3.034	69,81	787	11,9
	Administrazioko langileak	3.542	2.357	3.650	1.185	50,28	-108	-3,0
	Zerbitzuetako kualifikatuak	20.932	15.872	21.234	5.060	31,88	-302	-1,4
	Oinarrizko kualifikatuak	464	131	578	333	254,20	-114	-19,7
	Industriako kualifikatuak	3.755	2.407	3.877	1.348	56,00	-122	-3,1
	Operadoreak	4.817	3.221	4.653	1.596	49,55	164	3,5
	Kualifikatu gabeak	18.973	13.961	20.303	5.012	35,90	-1.330	-6,6
	Guztira	74.413	47.966	73.474	26.447	55,14	939	1,3
ABLE	Gizonak	7.789	5.301	7.309	2.488	46,93	480	6,6
	Emakumeak	4.081	2.401	3.644	1.680	69,97	437	12,0
	Guztira	11.870	7.702	10.953	4.168	54,12	917	8,4
Pertsona-kopurua	Gizonak	28.011	18.781	28.203	9.230	49,15	-192	-0,7
	Emakumeak	28.741	17.860	28.840	10.881	60,92	-99	-0,3
	Guztira	56.752	36.641	57.043	20.111	54,89	-291	-0,5
	Derrigorrezko hezkuntzako ikasketak	23.492	16.509	24.519	6.983	42,30	-1.027	-4,2
	Batxilergoa	13.033	8.496	11.890	4.537	53,40	1.143	9,6
	LHko ikasketak	8.766	5.681	9.045	3.085	54,30	-279	-3,1
	Unibertsitate-ikasketak	11.325	5.826	11.374	5.499	94,39	-49	-0,4
	Atzerritarra	11.633	8.042	11.554	3.591	44,65	79	0,7
	Bertakoa	45.119	28.599	45.489	16.520	57,76	-370	-0,8
	<>	42	17	34	25	147,06	8	23,5
	Aberrigabea	68	50	67	18	36,00	1	1,5
	Europako Erkidegoa	837	415	845	422	101,69	-8	-0,9
	Erkidegokoa ez den Europa	889	510	893	379	74,31	-4	-0,4
	Txina	115	83	131	32	38,55	-16	-12,2
	Japonia	4	7	1	-3	-42,86	3	300,0
	Asiako beste herrialde bat	569	393	544	176	44,78	25	4,6
	Saharaz hegoaldeko Afrika	1.704	911	1.843	793	87,05	-139	-7,5
	Afrikako iparraldea	1.715	986	1.882	729	73,94	-167	-8,9
	Ipar Amerika	36	16	25	20	125,00	11	44,0
	Erdialdeko eta Hego Amerika	5.648	4.651	5.283	997	21,44	365	6,9
	Ozeania	6	3	6	3	100,00	0	0,0
	Atzerritarrak guztira	11.633	8.042	11.554	3.591	44,65	79	0,7